

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	2022IPLE0005
ATALA.	IDAZKARITZA
GAIA	ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

2022-07-27ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2022ko uztailaren 27an, arratsaldeko 19:30tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ez-ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola
- Mikel Galarza Arrue

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Unai Dorronsoro Olarra
- Aingeru Galarraga Barandiaran

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIK


1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2021EKO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA
4. UDALEKUEN BALORAZIOA
5. ELIZA INGURUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN OBREN AMAIERA
6. TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M.-REKIN LANKIDETZA HITZARMENA
7. AIZKORRI TXIKIKO BIDEAN DAUDEN LANGEN EGOERA
8. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2022-05-25eko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2022ko 40 eta 58 bitarteko dekretuen berri eman da.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

3. 2021EKO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Kontuan harturik jende aurrean egon den epean ez dela inolako alegaziorik izan, Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2021eko kontu orokorra onartzea.

Bigarrena.- TVCP/HKEE-ra bidaltzea.

4. UDALEKUEN BALORAZIOA

Aurtengo udalekuen balorazio positiboa egin da; lehenengo aldiz 4 asteko iraupena izan dute, eta nahiz eta asistentzia zerbait gutxitu den 4. astean, hurrengo urteetan ere 4 asteko iraupenarekin jarraitzea onetsi da.

Bestalde, haur batzuen jarrerarekin arazoak egon dira, eta nahiz eta gurasoekin ere hitz egin den, ez da lortu egoerari buelta ematea.

Azkenik, aurreko urtetan ez bezala (Covid 19-aren murrizketak), aurten egin dira irteerak eta oso gustora ibili dira haurrak.

5. ELIZA INGURUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN OBREN AMAIERA

Eliza inguruko urbanizazio proiektuaren obrak amaitzen ari dira, eta azken ikutuak egitea bakarrik falta da.


Ostiralean etorri zen Xabier Rezabal arkitektoa Albizturko udaletxera, eta egoeraren berri eman zigun.

6. TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M.-REKIN LANKIDETZA HITZARMENA

Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k lankidetzaren hitzarmena proposatu dio Albizturko Udalarari herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko ahaleaginean, herritarrak euskaraz informatzeko eskualde mailako komunikabide sarea sustatzeko.

Proiektuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, hitzarmena 4 urtekoa (2022-2025) izango da. Urtean urteko errolda eguneratuaren arabera, biztanleko 5 € emango dizkio 2022, 2023, 2024 eta 2025. urteetan Albizturko Udalak TKT-ri.

Gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Lehena.- Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.rekin lankidetzat hitzarmena sinatzea.

Bigarrena.- Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.ri erabakiaren berri ematea.

7. AIZKORRI TXIKIKO BIDEAN DAUDEN LANGEN EGOERA

Azarola Goikoako langari dagokionez, behin eta berriz esan zaie langa kendu beharra dutela, eta oraingoz ez dute kendu. Iraila hasiera arteko epea emango zaie, eta kentzen ez badute isunak jartzen hasiko da Albizturko Udala.

Ibarzabalgo jabeek ez dute arazorik, eta langa kentzeko prestutasuna agertu dute.

Arazoak izan ditugu Atsisaetako jabeek jakinarazpena bidaltzeko; lehenengo bidali genion gizona hil berria da, eta familiako beste bati bidali diogu. Oraindik erantzunaren zain gaude.

Azkenik, Alkortakoek, alegazioak aurkeztu dituzte, langa ireki eta isteko arazorik ez dagoela eta langa behar dutela abereek ihes ez egiteko adieraziz. Ez zaizkie onartu alegazioak eta langa kentzeko eskatu zaie berriz.

Irailaren hasiera arteko epea utziko zaie denei, eta ordurako ez badituzte kentzen, neurri berriak hartuko ditugu.

8. GALDERA ERREGUAK

- **Gaztematika:** Gipuzkoako Foru Aldundiak egitasmo berri bat aurkeztu du: 2 hezitzaile kontratatuko dituzte, astean herri bakoitzarentzat 4 ordu. Kostua GFA-k hartuko luke bere gain, baina udal bakoitzak 1.000 €-ko ekarpena egin behar du. 10 udalerrri aukeratu dituzte baina beharrezkoa da aurrez izena ematea.


Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Gaztematika-ren egitasmo berriaren izena ematea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari erabakiaren berri ematea.

- **Geograma-rekin bilera:** Uztailaren 20an egin zen Geograma enpresako arduradunekin bilera. Lehenengo pauso moduan, irailaren 2. hamabostaldian bilera egingo da Albizturko 2. poligonoko lur jabe guztiekin eta egitasmoaren berri emango zaie.

- **Etarte eta Aitzaldeko lurjabeekin bilera:** Urte asko igaro dira Albizturko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra onartu zenetik, eta bertan aurrikusitako Etarte eta Aitzaldeko eremuetan etxe berriak egiteko mugimendurik ez dagoenez, irailean bilera egingo da lurjabeekin gaia aztertu eta Udalaren asmoak azaltzeko.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

- **Lur publikoan dauden egurtokiak:** Herritarren artean bandoa zabaldu zenetik hilabete igaro denez, eta oraindik lur publikoan egurtoki batzuk badaudenez, egurtoki hauen jabeei zuzenean jakinarazpena bidaliko zaie egurtokia kentzeko eskatuz.

- **Jose Inazio-ren egoera:** Gizarte Segurantzak erabateko ezgaitasuna (incapacidad total) eman dio Jose Inazio-ri, eta beraz, Albizturko Udalarekin zuen lan harremana amaitu da. Udazkenean langile balioanitzdunaren funtzioak zehaztekotan geratu gara, eta ondoren plaza atera behar da.

Osoko bilkura, 21:10etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2022ko uztailaren 28an